Kontsulta hori egingo da datu bitartekaritzako plataformen edo beste sistema elektroniko batzuen bidez, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, edozein administrazio egindako dokumentuak ez aurkezteko eskubideari dagokionez eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak, sektore publikoaren araubide juridikoarenak, 155. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoak, zortzigarren xedapen gehigarrian adierazitakoaren arabera.

Eskatzaileak aukera izango du egiaztatze horren aurka egiteko, eta, kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Ez da beharrezkoa izango dokumentuak aurkeztea, Arrasateko Udalaren esku egonez gero, betiere noiz eta zein bulegotan entregatu ziren adierazten bada.

5.4. Plazo de presentación.

Las solicitudes de participación podrán presentarse en un plazo máximo de veinte días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio del extracto de la convocatoria en el *Boletín Oficial del Estado*.

5.5. Documentación a presentar con la solicitud.

Para la admisión y participación en el proceso selectivo, además del justificante del pago de la tasa, no será necesario acompañar a la solicitud ningún documento. Bastará con que las personas aspirantes manifiesten, bajo su responsabilidad, que reúnen todos y cada uno de los requisitos exigidos para participar en el proceso en la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes, a excepción del requisito de conocimiento de euskera. Para ello se estará a lo dispuesto en la base 9.3.

La manifestación en la solicitud de participación de que la persona aspirante cumple los requisitos de participación y ostenta los méritos alegados en la misma, tendrá la consideración de declaración responsable en los términos del artículo 69 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

La acreditación documental de los requisitos de participación y de los méritos alegados en la solicitud sólo deberán realizarla, en el momento que corresponda, aquellas personas expresamente requeridas para ello que determine la Alcaldía o el Tribunal Calificador correspondiente, de conformidad con lo establecido en las bases 9.4 y 11.1.

A dichos efectos, en la solicitud se podrá dar consentimiento para que, en el momento que corresponda, el Ayuntamiento de Mondragón pueda verificar directamente los siguientes datos:

- Dirección General de la Policía: Consulta y verificación de datos de identidad.

- Gobierno Vasco: Perfiles de certificaciones de euskera.

- Ministerio de Justicia: Inexistencia antecedentes penales y antecedentes por delitos sexuales (estos últimos exclusivamente en el caso de trabajo con menores).

- Ministerio de Educación: Títulos no universitarios oficiales.

- Ministerio de Educación: Títulos universitarios oficiales.

- Dirección General de Tráfico: Carnets de conducir (cuando sean requisito para acceder al puesto).

- Gobierno Vasco: IT Txartelak.

- Gobierno Vasco: Certificados de Cursos (IVAP).

- Diputaciones Forales: Consulta y verificación de datos de minusvalía.

Dicha consulta se realizará a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos de acuerdo con el artículo 28.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en relación con el derecho a no aportar los documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración y en virtud de lo establecido en el artículo 155 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y Disposición Adicional Octava de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

La persona solicitante tendrá opción a oponerse a dicha verificación, en cuyo caso deberá presentar la documentación pertinente.

No será preciso aportar los documentos que ya estuvieran en poder del Ayuntamiento de Mondragón, siempre y cuando se haga constar la fecha y la dependencia en la que fueron entregados.

Seigarrena. Hautagaiak onartzea.

6.1. Hautagaiak, onartuak izateko, eskabidean adierazi behar dute parte hartzeko baldintza guztiak betetzen dituztela. Adierazpen hori hautagai bakoitzaren erantzukizunpean egongo da, eta onartutakoen zerrendan agertzeak ez du esan nahi baldintza horiek betetzen dituela aitortzen zaionik; beraz, Udalak aukera izango du hautagaia hautaketa prozesutik kanpo uzteko, eskatzen zaion unean ez badu egiaztatzen baldintzak betetzen dituela.

6.2. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, udal organo eskudunak onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartuko du, eta hura argitaratuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Udaletxeko iragarki taulan eta webgunean (www.arrasate.eus), eta 10 egun baliouduneko epea emango da baztertea eragin zuten akatsak edo omisioak zuzentzeko, edo zerrenda horren aurkako erreklamazioak aurkezteko.

Behin-behineko zerrenda automatikoki behin betikotzat joko da, ez bada aurkezten erreklamaziorik edo ez bada hautematen ofiziozko akatsik, eta horren berri emango da udal organo eskudunaren ebazpen baten bidez, zeina argitaratuko baita udalaren iragarki taulan eta webgunean.

Erreklamaziorik aurkeztuz gero, onartu edo ezetsi egingo dira beste ebazpen baten bidez, eta ebazpen horren bitartez behin betiko zerrenda onartuko da, zeina argitaratuko baita Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, iragarki taulan eta udalaren webgunean.

6.3. Behin betiko kanporatutako hautagaiak berraztertze-ko errekurtsua aurkeztu ahal izango diote ebazpena eman zuen organo berari, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hila-beteko epean, edo zuzenean inpugnatu ahal izango dute, bi hilabeteko epean, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

6.4. Behin-behineko zerrendetatik kanporatu eta epe barruan zerrenda horien aurkako erreklamazioa aurkezten duten hautagaiak kautelaz aurkeztu ahal izango dira probak egitera, planteatutako erreklamazioa egun horretarako ebatzi ez bada.

Era berean, behin betiko zerrendetatik kanpo geratu direnak kautelaz aurkeztu ahal izango dira probak egitera, betiere egiaztatzen badute kanporatu izanaren aurkako errekurtsua aurkeztuta dutela, eta erreklamazioa egun horretarako ebatzi ez bada.

Zazpigarrena. Kalifikazio epaimahaia.

7.1. Izendapena.

7.1.1. Alkate udalburuak ebazpena emango du deialdi bakoitzeko kalifikazio epaimahaiko kide titullarrak eta ordezkioak izendatzeko, eta epaimahai hori arduratuko da hautaketa probak garatzeaz eta kalifikatzeaz.

7.1.2. Izendapenak argitaratuko dira Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, iragarki taulan eta udalaren webgunean.

7.2. Osaera.

7.2.1. Deialdi bakoitzeko kalifikazio epaimahaia osatuko dute mahaiburu batek eta gutxienez lau mahaikidek, eta hautaketa probak kalifikatu behar dute. Gainera, idazkari bat izendatuko da, zeinak hitza izango baitu, baina botorik ez.

7.2.2. Inola ere ezingo dira izan hautaketa organoetako kide:

- a) Hautaketa edo izendapen politikoko langileak.
- b) Behin-behineko langileak.
- c) Bitarteko funtzionarioak.

Sexta. Admisión de aspirantes.

6.1. Las personas aspirantes, para ser admitidas, deberán declarar en la solicitud que reúnen todos los requisitos de participación. Dicha declaración será bajo la responsabilidad de cada aspirante y el hecho de figurar en la relación de personas admitidas no prejuzga que se le reconozca la posesión de los citados requisitos, por lo que el Ayuntamiento se reserva la posibilidad de excluir a la persona aspirante del proceso selectivo en caso de que no acredite el cumplimiento de los requisitos en el momento en que se le sea requerida.

6.2. Expirado el plazo de presentación de instancias, el órgano municipal competente aprobará la lista provisional de personas aspirantes admitidas y excluidas, que se hará pública en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en su página web (www.arrasate.eus), concediéndose un plazo de 10 días hábiles para la subsanación de defectos u omisiones que hubieran motivado la exclusión, o para plantear reclamaciones contra dicha lista.

La lista provisional se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se presentan reclamaciones o no se aprecian errores de oficio, y así se hará saber mediante una resolución del órgano municipal competente que se publicará en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento.

Si se presentan reclamaciones, serán estimadas o desestimadas mediante una nueva resolución por la que se aprobará la lista definitiva, que se hará pública en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento.

6.3. Las personas aspirantes definitivamente excluidas podrán interponer recurso de reposición ante el mismo órgano que dictó la resolución en el plazo de un mes a partir de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, o impugnarla directamente, en el plazo de dos meses, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián.

6.4. Las personas excluidas en las listas provisionales, que hubieran presentado reclamación en plazo contra las mismas, podrán presentarse con carácter cautelar a la realización de las pruebas, si para dicha fecha no se ha resuelto la reclamación planteada.

Asimismo, las personas excluidas en las listas definitivas podrán presentarse a la realización de las pruebas con carácter cautelar, siempre y cuando acrediten haber presentado el oportuno recurso contra su exclusión, y si para dicha fecha no se ha resuelto el mismo.

Séptima. Tribunal calificador.

7.1. Nombramiento.

7.1.1. La Alcaldía-Presidencia dictará Resolución designando a los/as miembros titulares y suplentes del Tribunal Calificador de cada convocatoria, el cual se responsabilizará del desarrollo y calificación de las pruebas selectivas.

7.1.2. Los nombramientos se publicarán en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento.

7.2. Composición.

7.2.1. El Tribunal Calificador de cada convocatoria estará compuesto por una persona que ostente la presidencia y al menos cuatro vocales, que habrán de calificar las pruebas selectivas. Además, se nombrará una persona que ostente la secretaría con voz, pero sin voto.

7.2.2. En ningún caso podrán formar parte de los órganos de selección:

- a) El personal de elección o de designación política.
- b) El personal eventual.
- c) El personal funcionario interino.

d) Aldi baterako lan kontratudun langileak.

e) Azken bost urtean hautagaiak enplegu publikoan sar-tzeko prestatzen jardun duten pertsonak, lanbide taldeei edo lanbide kategoriei dagokienez, aukera izan dutenak jarduera hori garatzeko.

f) Sindikatuen, funtzionarioen elkarteen edo profesionalen elkargoen izenean edo ordezkaritzan diharduten langileak.

Hautaketa organoetako kide izatea beti izango da norbera-ren izenean, eta ezin izango da jardun inoren izenean edo ino-ren kontura.

7.2.3. Idazkariak izan ezik, kalifikazio epaimahaiko kide guztien titulazio akademikoa izango da deitutako plaza bakoit-zean parte hartzeko eskatzen den maila berekoa edo handiagoa. Halaber, espezialitate printzipioa errespetatuko da; horren ara-bera, kideen erdiek, gutxienez, deialdi honetan parte hartzeko eskatzen den jakintza arlo bereko titulazioa izan beharko dute.

7.2.4. Idazkaritza lanak behar bezala kualifikatutako udal langileek egingo dituzte, eta, behar izanez gero, udal aholkulari juridiko baten laguntza izango dute.

7.2.5. Kalifikazio epaimahaiaren osaera nagusiki teknikoa izango da, espezialitate, inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioei egokitu-ko zaie, eta emakumeen eta gizonen arteko parekotasunera joko da. Nolanahi ere, kontuan hartuko dira urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartu-tako Enplegatu Publikoaren Oinarritzako Estatutuaren Legearen testu bateginaren 60. artikulua- ren 2. eta 3. zenbakiek epaima- haiaren osaerari ezartzen dizkieten mugak.

7.2.6. Epaimahaiak aholkulari espezialistak eduki ahal izango ditu bere lanetan, hautaketa prozesuko proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulari espezialistek hitza izango dute, baina botorik ez, eta beren jarduera muga izango da epaimahaiari laguntzea espezialitate teknikoetan.

7.2.7. Udalak IVAPi eskatu beharko dio epaimahaiakide bat izendatzeko, hautaketa prozesuaren nondik-norakoa indartze-ko, deialdiaren xede den gaian adituak diren profesional batzuke sartuz.

7.2.8. Eragotzi gabe IVAPek kalifikazio epaimahaietan izen- datutako kide bati dagokion ordezkaritza, erakunde horrek izen- datutako kide bat epaimahai horien parte izango da bakar-baka- rrik hizkuntza eskakizunen probak egiteko eta ebaluatzeko.

7.2.9. Ez badago udal teknikaririk deialdietan parte har- tzeko eskatzen den jakintza alorreko titulazioarekin, eta espe- zialitate printzipioa zorrotz betetzearren, laguntza eskatuko zaie beste administrazio edo erakunde ofizial batzuei, egokitzen jo- tzen dituzten teknikariak edo adituak izendatzea proposatu de- zaten.

7.2.10. Enbor komuna duten hautaketa prozesuetako ari- ketak egin behar direnean, udal organo eskudunak kalifikazio epaimahai bakarra izendatu ahal izango du, eta epaimahai hori arduratuko da ariketa horiek garatzeaz eta kalifikatzeaz. Halako epaimahaiak jardun ahal izango du sortzen den unean zehaztu edo erabakitzen diren ariketetan bakarrik.

7.2.11. Epaimahaiak modu orekatuan egongo da osatuta trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakume- kin eta gizonekin, ez bada justifikatzen behar bezala hori egitea ez dela egokia.

d) El personal laboral temporal.

e) Las personas que se hayan dedicado en los últimos cin- co años a preparar aspirantes para el ingreso al empleo público, en relación con los grupos o categorías profesionales respecto de los cuales hayan podido desarrollar dicha actividad.

f) El personal que actúe en representación o por cuenta de los sindicatos, de asociaciones de personal funcionario o de co- legios profesionales.

La pertenencia a los órganos de selección será siempre a tí- tulo individual, no pudiendo ostentarse ésta en representación o por cuenta de nadie.

7.2.3. A excepción de la persona que ostente la secretaria, todas las demás personas que compongan el Tribunal Califica- dor tendrán titulación académica de nivel igual o superior al exi- gido para tomar parte en cada una de las plazas convocadas. Se respetará, asimismo, el principio de especialidad, conforme al cual al menos la mitad de las personas que compongan el Tri- bunal deberán poseer una titulación correspondiente a la mis- ma área de conocimiento que la exigida para tomar parte en es- ta convocatoria.

7.2.4. Las labores de Secretaría serán asumidas por per- sonal municipal debidamente cualificado que en su caso será asistido por una persona asesora jurídica municipal.

7.2.5. La composición del Tribunal Calificador será predo- minantemente técnica, se ajustará a los principios de especiali- dad, imparcialidad y profesionalidad, y se tenderá a la paridad entre mujeres y hombres. Se atenderá, en todo caso, a las limi- taciones que para la composición del Tribunal establecen los apartados 2 y 3 del artículo 60 del Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, aprobado por Real De- creto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre.

7.2.6. El Tribunal podrá disponer la incorporación a sus tra- bajos de personas asesoras especialistas, para todas o algunas de las pruebas del proceso selectivo. Las personas asesoras espe- cialistas, que tendrán voz, pero no voto, limitarán su actuación a colaborar con el Tribunal en el ejercicio de sus especialidades técnicas.

7.2.7. El Ayuntamiento deberá solicitar al Instituto Vasco de Administración Pública la designación de un miembro del tri- bunal, con la finalidad de reforzar el desarrollo del proceso se- lectivo mediante la incorporación de determinados profesiona- les expertos en la materia objeto de la convocatoria.

7.2.8. Sin perjuicio de la representación que corresponde a un/a miembro designado por el IVAP en los Tribunales califi- cadores, un/a miembro designado por dicho Instituto formará parte de los mismos a los solos efectos de la realización y eva- luación de las pruebas destinadas a la acreditación de los per- files lingüísticos.

7.2.9. Para el supuesto de que no exista personal técnico municipal con la titulación correspondiente al área de conoci- mientos que la exigida para tomar parte en las diferentes con- vocatorias, y al objeto de cumplir estrictamente el principio de especialidad, se solicitará colaboración a otras administracio- nes u organismos oficiales para que propongan la designación de personas técnicas o expertas que consideren idóneas.

7.2.10. Cuando se deban realizar ejercicios de diferentes procesos selectivos que presenten un tronco común, el órgano municipal competente podrá designar un Tribunal Calificador único que se encargará del desarrollo y calificación de esos ejer- cicios. Este tipo de tribunales podrá actuar únicamente en aque- llos ejercicios que se determinen en el momento de su creación.

7.2.11. Salvo que se justifique debidamente su no-perti- nencia, la composición del tribunal ha de ser equilibrada de mu- jeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuada.

Ordezkaritza hori orekatutzat hartzen da baldin eta lau kide baino gehiagoko organoetan sexu bakoitzak gutxieneko % 40ko ordezkari-tza badu; gainerako kasuetan, berriz, bi sexuek ordezkari-tza dutenean.

Salbuespen gisa, eta Berdintasun sailak aldeko txostena ematen badu, justifikatuta egongo da ez aplikatzea ordezkari-tza orekatuaren irizpidea pertsona anitzeko administrazio organoetan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.9 artikulua jasotzen dituen kasuetan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako, martxoaren 3ko 1/2022 legeak aldatua, emakumeen eta gizonen berdintasunerako legearen bigarren aldaketa.

7.3. Abstentzioa eta errekusazioa.

7.3.1. Epaimahaiko kideek eta aholkulari adituek uko egin beharko diote parte hartzeari, edo errekusatu egin ahal izango dituzte interesdunek edozein unetan, baldin eta gertatzen bada urriaren 1eko 40/2015 Legeak, sektore publikoaren araubide juridikoarenak, 23. artikuluan aipatzen dituen abstentzio egotretako bat.

7.3.2. Hautaketa probak hasi baino lehen, Ebazpena argitaratuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, eta horren bitartez epaimahaiko kide berriak izendatuko dira, Legean adierazitako arrazoiaren batengatik epaimahaikide izaera galdu dutenak ordezkatzeko.

7.4. Jarduteko arauak.

7.4.1. Epaimahaiak, deialdi bakoitzean aplikagarri diren oinarriaz gain, 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 15. artikulutik 18. artikulura bitartean ezarritako arauak ere bete beharko ditu bere jardunean. Epaimahaia balio osoz eratzeko, aldeaz aurretik idazkariak deituta bilduko da, mahaiburua aginduz, eta balio osoz eratzeko, bilkurak egiteko, gaiak aztertu eta erabakiak hartzeko, nahitaezkoa izango da bileran izatea mahaiburua eta idazkaria, aurrez aurre edo urrutitik parte hartuta, edo, hala badagokio, haien ordezkariak, eta gutxienez epaimahaikideen erdia.

Epaimahaia modu telematikoa bildu ahal izango da, baldin eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 17.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira, eta betiere kalifikazio epaimahaiak berak hala erabakitzen badu.

7.4.2. Lehenengo bilkura, non kalifikazio epaimahaia eratu baita, hautaketa probak hasi baino lehenago egingo da, nahikoa denboraz. Hala ere, idazkaria eta organo kolegiatuko kide guztiak edo, hala badagokio, haien ordezkariak direnak aurrez aurre edo urrutitik bilduta daudenean, organo kolegiatu gisa balio osoz eratu ahal izango dira bilkurak egiteko, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko, aldeaz aurretik deialdirik egin beharrik gabe, kide guztiak hala erabakitzen badute.

7.4.3. Epaimahaiko kide guztiak izango dute hitza eta botoa, idazkariak izan ezik. Idazkariak hitza izango du, baina botorik ez. Erabakiak bertaratutakoek emandako botoen gehiengo hartuko dira. Berdinketak ebartziko dira epaimahaiburua kalitatezko botoaren bidez.

7.4.4. Epaimahaiko kideren bat ez dagoenean edo gaixorik dagoenean, eta oro har, ez egoteko arrazoi justifikaturen bat dagoenean, epaimahaiko kide titularak beren ordezkariak ordezkariak izango dituzte.

7.4.5. Epaimahaiburua eta haren ordezkariaren tokia hutsik badago, kanpoan edo gaixorik badaude edo legezko beste arrazoiaren bat gertatzen bada, epaimahaikide batek ordezkariak izango ditu, epaimahaia izendatzeko ebazpenean duten ordenaren arabera. Idazkariaren eta haren ordezkariaren ordezkariak, kargua hutsik badago, kanpoan bada, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiaren bat gertatzen bada, epaimahaiko beste edozein kidek beteko du, epaimahaiaren gehiengoak hala erabakitak.

Se considera que existe una representación equilibrada cuando en los órganos de más de cuatro miembros cada sexo está representado al menos al 40 %; en el resto, cuando los dos sexos estén representados.

Excepcionalmente, y con el informe favorable del departamento de Igualdad, se podrá justificar la no aplicación del criterio de representación equilibrada en los órganos pluripersonales en los casos a que se refiere el artículo 3.9 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, modificada por la Ley 1/2022, de 3 de marzo, de segunda modificación de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

7.3. Abstención y recusación.

7.3.1. Las personas componentes del Tribunal y las personas asesoras especialistas deberán abstenerse de actuar, o podrán ser recusadas en cualquier momento por las personas interesadas, si concurre alguno de los motivos de abstención previstos en el artículo 23 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

7.3.2. Con anterioridad a la iniciación de las pruebas selectivas se publicará Resolución en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa por la que se nombre a los/as siguientes miembros de los tribunales que hayan de sustituir a quienes hayan perdido su condición por alguna de las causas previstas en la Ley.

7.4. Reglas de actuación.

7.4.1. El Tribunal, sin perjuicio de lo dispuesto en las bases aplicables en cada convocatoria, ajustará su actuación a las reglas establecidas en los artículos 15 a 18 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. Para su válida constitución el Tribunal se reunirá previa convocatoria del Secretario o Secretaria, por orden de su Presidente o Presidenta, siendo necesaria para su válida constitución a efectos de la celebración de sesiones, deliberaciones y toma de acuerdos, la asistencia, presencial o a distancia, del Presidente o Presidenta y del Secretario o Secretaria, o, en su caso, de quienes les sustituyan, y de la mitad, al menos, de sus vocales.

El tribunal podrá reunirse de forma telemática siempre y cuando se cumplan los requisitos de artículo 17.1 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, y así lo acuerde el propio tribunal calificador.

7.4.2. La primera sesión, en la que se constituirá el Tribunal Calificador, se celebrará con antelación suficiente al inicio de las pruebas selectivas. No obstante, cuando el Secretario o la Secretaria y el resto de los miembros del órgano colegiado o, en su caso, quienes les sustituyan, estén reunidos de forma presencial o a distancia, podrán constituirse válidamente como órgano colegiado para la celebración de sesiones, deliberaciones y adopción de acuerdos, sin necesidad de previa convocatoria, si así lo deciden todos sus miembros.

7.4.3. Todas las personas que compongan el Tribunal tendrán voz y voto, con excepción de quien ostente la secretaría que actuará con voz, pero sin voto. Los acuerdos serán adoptados por mayoría de votos de las personas presentes. Los empates se resolverán por el voto de calidad de quien ejerza la presidencia.

7.4.4. En caso de ausencia o de enfermedad y, en general, cuando concurra alguna causa justificada, las personas titulares del Tribunal serán sustituidos por sus respectivos/as suplentes.

7.4.5. En caso de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal que afecte a la persona que ostente la presidencia y a su suplente, serán sustituidas por un vocal en función de su orden en la resolución de nombramiento del Tribunal. La sustitución de la persona que ostente la secretaría y de su suplente, en los casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal, recaerá en cualquier otro miembro del Tribunal elegido por acuerdo mayoritario de éste.

7.4.6. Organo kolegiatuko kide batek ordezkatzan badu idazkaria, kide horrek bere horretan gordeko ditu eskubide guztiak, eta hitza eta botoa izango ditu.

7.4.7. Epaimahaiaren jardunari eta/edo argitalpenei alegazioak egin nahi bazaizkie, idatziz aurkeztuko dira Arrasateko Udalaren erregistroan, egoitza elektronikoaren bitartez edo Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legerian aipatzen diren erregistroetako edozeinetan.

7.4.8. Kalifikazio epaimahaien erabakiak jakitera emango dira, erabakiok ezagutarazteko komenigarritzat jotzen dioten eran.

7.5. Ahalmenak.

7.5.1. Epaimahaiak autonomia funtzional osoz jardungo du, prozeduraren objektibotasunaren erantzule izango da, eta bermatuko du deialdiaren oinarriak betetzen direla. Haren jardunean bermatuko dira independentziaren eta diskrezionalitate teknikoaren printzipioak.

7.5.2. Halaber, ordenamendu juridikoarekin bat etorritik, epaimahaiak ahalmena du oinarri hauetan eta deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan aurreikusita ez dagoen guztian sortzen diren zalantzak argitzeko eta deialdi bakoitza behar bezala garatzeko behar diren erabakiak hartzeko.

7.5.3. Idazkariari dagokio zaintzea kide anitzeko organoaren jardueren legezkotasun formala eta materiala, ziurtatzea haren jarduerak, eta bermatzea eratzeko eta erabakiak hartzeko prozedurak eta arauak errespetatzen direla.

7.5.4. Hautaketa prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero hautagai batek ez duela betetzen dagokion deialdian parte hartzeko eskatutako baldintzaren bat, aldez aurretik interesdunari entzunda, hura kanporatzea proposatu beharko dio organo eskudunari, eta hautagaiak eskabidean adierazitako zehaztasun faltak edo faltsakeriak jakinaraziko ditu.

7.5.5. Epaimahaiak neurri egokiak hartuko ditu oposizio faseko idatzizko ariketen edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko, eta ariketa horiek zuzendu daitezela, ahal dela, hautagaiak nortzuk diren jakin barik.

7.5.6. Epaimahaiak hautagaiak kanporatu ahal izango ditu, baldin eta haien azterketa orrietan agertzen bada izenik, markarik edo zeinurik haien nortasuna ezagutarazteko edo ariketak egitean iruzurrezko edozein jardura egiten bada.

7.5.7. Epaimahaiaren ebazpenek udal organo eskudunak lotzen dituzte, nahiz eta organo horiek, hala badagokio, ebazpen horiek berrikusi ahal izango dituzten, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 106. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera.

7.6. Egoitza.

Jakinarazteko eta gainerako intzidentzietarako, kalifikazio epaimahaien egoitza egongo da Pertsonaleko sailean (Herriko Plaza Nagusia 1, 20500 Arrasate).

Zortzigarrena. Deialdiak, jakinarazpenak eta informazioa.

8.1. Hautaketa prozesu bakoitzeko ariketak egiteko deialdiak argitaratuko dira udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian.

8.2. Era berean, deialdi bakoitzari buruzko informazioa interesdunen eskura jarriko da udalaren webgunean edo haren ordezkari beste bitarteko ofizial batean. Webgune horrek izaera informatiboa du, eta jakinarazteko gainerako bitarteko ofizialak dira aurreko paragrafoan adierazitakoak.

7.4.6. En caso de que la persona que ostente la secretaría sea suplida por un miembro del órgano colegiado, ésta conservará todos sus derechos como tal y actuará con voz y voto.

7.4.7. Las alegaciones ante las actuaciones y/o publicaciones de los Tribunales se presentarán, por escrito, en el Registro del Ayuntamiento de Mondragón, a través de la sede electrónica o en cualquiera de los registros establecidos en la legislación sobre el Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

7.4.8. Los acuerdos de los tribunales calificadores se harán públicos en la forma que juzgue conveniente para facilitar su conocimiento.

7.5. Facultades.

7.5.1. El Tribunal actuará con plena autonomía funcional, será responsable de la objetividad del procedimiento y garantizará el cumplimiento de las bases de la convocatoria. En su actuación se garantizarán los principios de independencia y discrecionalidad técnica.

7.5.2. Asimismo, de acuerdo con el ordenamiento jurídico, el Tribunal queda facultado para resolver las dudas que se planteen en todo lo no previsto en las presentes bases y en las bases específicas de cada convocatoria, y para tomar los acuerdos necesarios para el buen orden en el desarrollo de cada convocatoria.

7.5.3. Corresponde a quien ostente la secretaría velar por la legalidad formal y material de las actuaciones del órgano colegiado, certificar las actuaciones del mismo y garantizar que los procedimientos y reglas de constitución y adopción de acuerdos son respetados.

7.5.4. En cualquier momento del proceso selectivo, si el Tribunal tuviera conocimiento de la existencia de aspirantes que no cumplen alguno de los requisitos exigidos para participar en la correspondiente convocatoria, previa audiencia de la persona interesada deberá proponer su exclusión al órgano competente, comunicando las inexactitudes o falsedades formuladas por el/la aspirante en la solicitud de participación.

7.5.5. El Tribunal adoptará las medidas oportunas para garantizar la confidencialidad del contenido de los ejercicios escritos de la fase de oposición, así como que sean corregidos garantizando, siempre que sea posible, que no se conozca la identidad de las personas aspirantes.

7.5.6. El Tribunal podrá excluir a aquellas personas aspirantes en cuyas hojas de examen figuren nombres, marcas o signos que permitan conocer su identidad o lleven a cabo cualquier actuación fraudulenta durante la realización de los ejercicios.

7.5.7. Las resoluciones del Tribunal vinculan a los órganos municipales competentes, aunque éstos, en su caso, puedan proceder a su revisión conforme a lo previsto en los artículos 106 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

7.6. Sede.

A efectos de comunicaciones y demás incidencias los Tribunales Calificadores tendrán su sede en el Departamento de Personal, sito en Herriko Plaza Nagusia 1, 20500 de Mondragón.

Octava. Convocatorias, notificaciones e información.

8.1. Las convocatorias para la realización de los ejercicios de cada proceso selectivo se publicarán en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento.

8.2. Asimismo, se pondrá a disposición de las personas interesadas información sobre cada convocatoria en la página web del Ayuntamiento u otro medio oficial que venga a sustituirle. Dicha página web tiene carácter informativo, siendo los medios oficiales de notificación el resto de los indicados en el párrafo anterior.

8.3. Webgunean kontsultatu ahal izango dira, besteak beste, deialdi bakoitzaren oinarriak, onartuen eta kanporatuen behin-behineko eta behin betiko zerrendak, ariketen datak eta emandako kalifikazioak.

Bederatzigarrena. Hautaketa prozesua.

9.1. Hautaketa prozedura.

9.1.1. Hautaketa prozedura (oposizioa edo oposizio-lehiaketa) deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehaztuko da.

9.1.2. Salbuespen gisa, lehiaketa sistema aplikatu ahal izango da soilik lege esparruko arau batean xedatutakoaren arabera, merezimenduen balorazioa baino ez da egingo, eta lege-arau batek hala gaitzen duen neurrian, aplikatuko zaie lehenetasunez barne sustapen mugatuak, horiek deitzen direnean lanpostuak berriro sailkatzeko prozesuetan.

9.2. Oposizio fasea.

9.2.1. Oposizio fasea osatuko dute deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetako ariketek, Ariketa horiek kalifikatuko dira oinarri horietan xedatutakoaren arabera.

Ariketa teorikoak edo praktikoak deialdi bakoitzari dagozkion gaitzegietako gaiei buruzkoak izango dira.

Deialdi bakoitzean gaitegi bi egongo dira. Alde batetik, oinarri orokor hauen I. eranskinean ageri den gaitegi orokorra, plaza-ren titulazio mailari dagokiona. Bestalde, gaitegi espezifiko bat, oinarri espezifikoetan adieraziko dena.

Barne sustapeneko txandarako oposizio fasea salbuetsita egon daiteke gaitegi orokorrari dagokion proba egitetik; kasu horretan, deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoek berariaz jaso beharko dute salbuespen hori. Gainerako probek eduki eta balorazio bera izango dute barne sustapeneko txandarako eta txanda irekirako.

9.2.2. Lehenengo ariketa non egin, zer egunetan eta zer orduetan egin argitaratuko da udalaren iragarki taulan eta udalaren webgunean. Hurrengo ariketen berri erraz izateko, Epaimahaiak egoki irizitako moduan iragarriko ditu.

Epaimahaiak ahalmena izango du ariketen ordena aldatzeko, eta egun berean hainbat ariketa egiteko ere bai. kasu horretan, ebaluatuko dira bakar-bakarrik aurreko ariketa gainditu dutenen ariketak.

Egun eta ordu berean deitu ahal izango da enbor komun bat duten hautaketa prozesu desberdinetako ariketak egitea, arintasun eta eraginkortasun printzipioak bermatzearren. Hautaketa prozesu horietako bitan edo gehiagotan parte hartzen duten hautagaiek behin bakarrik egingo dute ariketa, eta emaitza bakarra izango da prozesu horietarako guztietarako.

9.2.3. Hautagaiei ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie, ezinbesteko kasuetan edo salbuespenezko beste batzuetan izan ezik. kasu horiek behar bezala justifikatu beharko dira, eta epaimahai bakoitzak libreki baloratuko ditu.

Haurdunaldi, erditze edo edoskitze egoeran egonez gero, baldin eta behar bezala egiaztatuta badaude, nahikoa arrazoi izan daiteke probak egiteko denbora edo lekua aldatzea justifikatzeko.

Aldaketa eskaerari erantzuten bazaio, antolaketa neurri beharrezkoak eta egokiak hartuko dira, hautagai guztien lehia berdintasunaren printzipioa bermatzeko.

Ezinbesteko arrazoiengatik edo salbuespenezko beste arrazoi batzuegatik bigarren deialdi bat eskatuz gero, eskaera hori zuzendu behar zaio kalifikazio epaimahaiari, eta eskatu beharko da, gehienez ere, lehen deiaaren ondorengo 3 egun baliodunetan.

8.3. En la página web se podrán consultar, entre otros extremos, las bases de cada convocatoria, las listas provisionales y definitivas de personas admitidas y excluidas, las fechas de los ejercicios y las calificaciones otorgadas.

Novena. Proceso selectivo.

9.1. Procedimiento de selección.

9.1.1. El procedimiento de selección (oposición o concurso-oposición) será el que se determine en las bases específicas de cada convocatoria.

9.1.2. Sólo en virtud de lo dispuesto en una norma con rango de ley podrá aplicarse, con carácter excepcional, el sistema de concurso, que consistirá únicamente en la valoración de méritos y que, en la medida en que una norma legal así lo habilite, se aplicará preferentemente a las promociones internas restringidas que se convoquen en los procesos de reclasificación de los puestos de trabajo.

9.2. Fase de oposición.

9.2.1. La fase de oposición estará constituida por los ejercicios que se indiquen en las bases específicas de cada convocatoria. Dichos ejercicios se calificarán conforme a lo dispuesto en las citadas bases.

Los ejercicios de carácter teórico o práctico versarán sobre materias incluidas en los temarios correspondientes a cada convocatoria.

Existirán dos temarios en cada convocatoria. Por un lado, un temario general que consta en el anexo I de las presentes bases generales y que se corresponde al nivel de titulación de la plaza. Por otro lado, un temario específico que se indicará en las bases específicas.

La fase de oposición para el turno de promoción interna podrá estar exenta de la prueba correspondiente al temario general, en cuyo caso las bases específicas de cada convocatoria deberán recoger expresamente esa exención. El resto de las pruebas tendrán el mismo contenido y valoración para el turno de promoción interna y para el turno libre.

9.2.2. El lugar, fecha y hora de realización del primer ejercicio será publicado en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en su página web. Los posteriores ejercicios serán anunciados por el Tribunal en la forma que juzgue conveniente para facilitar su conocimiento.

El Tribunal se reserva la facultad de cambiar el orden de los ejercicios, así como la de realizar varios ejercicios el mismo día. En este caso, sólo se procederá a evaluar cada ejercicio respecto de quienes hayan superado el anterior.

Se podrá convocar la realización de los ejercicios de diferentes procesos selectivos que presenten un tronco común en el mismo día y a la misma hora, para garantizar los principios de agilidad y eficacia. Las personas aspirantes que concurran a dos o más de esos procesos selectivos realizarán el ejercicio una sola vez y el resultado será único para todos esos procesos.

9.2.3. Las personas aspirantes serán convocadas para cada ejercicio en llamamiento único, salvo en los casos de fuerza mayor u otros excepcionales, debidamente justificadas y libremente apreciadas por cada Tribunal.

Las situaciones de embarazo, parto o lactancia, debidamente acreditadas, podrán constituir causa que justifique la modificación de las circunstancias de tiempo o lugar de celebración de las pruebas.

La atención de las solicitudes de modificación llevará aparejadas las medidas organizativas necesarias y adecuadas para garantizar el principio de igualdad de concurrencia de todas las personas candidatas.

La solicitud de un segundo llamamiento por causas de fuerza mayor u otros casos excepcionales deberá dirigirse al tribunal calificador y hacerse como máximo en los 3 días hábiles posteriores al primer llamamiento.

Atzeratzeko eskaerarekin batera, alegatzen duen egoeraren egiaztagiria aurkeztu beharko da.

Hautagaiak ez badira agertzen epaimahaiaren deialdian adierazitako lekuan, egunean eta orduan ariketak egiteko, baztertu gabe epaimahaiak onartzen dituen ezinbesteko arrazoiak edo beste zergati batzuk, hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira behin betiko.

Kalifikazio epaimahaiak uneoro eskatu ahal izango die hautagaiari identifikatu daitezela, eta beraz, ariketak egitera joan beharko dute Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea edo gida-baimena, edo atzerritarren kasuan agiri baliokidea hartuta, eta agiri hori erakutsi beharko dute hautaketa probak egiteaz arduratzeko diren udal langileek eskatuz gero.

9.2.4. Idatzizko ariketak egiteko, epaimahai bakoitzak beharrezko neurriak hartuko ditu, betiere ahal den neurrian, hautagaien anonimatua ziurtatzeko.

9.2.5. Hautaketa probak egiteko, desgaitasunen bat eduki eta hala eskatu duten pertsonentzat, denboraren eta bitartekoaren egokitzapen eta doikuntza arrazoizkoak ezarriko dira, betiere ez bada ahultzen probaren edukia eta ez bada murrizten edo kaltetzen eskatutako gaitasun maila.

Desgaitasuna duten pertsonak, erreserbako kupoa parte hartu edo ez, eskabidean adierazi badute denbora eta baliabideak egokitu behar dituztela hautaketa probak egiteko, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte hamar egun balioduneko epean, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzearekin batera emango dena:

- Mediku ziurtagiri bat, probak egiteko zer behar espezifiko duten adierazten duena.

- Desgaitasun-maila kalifikatzeko eskumena duen organo teknikoak emandako ebazpen edo ziurtagiri bat (jatorrizkoa edo kopia autentikoa). Agiri horretan, modu frogagarrian egiaztatuko dira hautagaiari onartu zaion desgaitasun-maila eta desgaitasun-maila hori eragin duten gabezia iraunkorrak. Hauxe bakarrik aldeztu aurretik Arrasateko Udalak ezin izan badu hau egiaztatu.

Agiri horiek aurkeztu beharko dituzte, epe horren barruan, behin-behineko zerrenda horretan onartu direnek zein baztertu direnek, izan ere, ez zaie beste eperik emango, behin-behineko zerrendan baztertuta egonik behin betiko zerrendan onartu direnei.

Kalifikazio epaimahaiari dagokio, ikusita zer agiri aurkeztu diren, ebaztea egokitzapenen bidezotasuna eta zehaztasuna, hautaketa proba bakoitzaren gorabehera espezifikoaren arabera. Egokitzapenak ez dira egingo modu automatikoan, bakar-bakarrik desgaitasunak eta egin beharreko probak zuzenean lotura dutenean.

Kalifikazio epaimahaiak hautagaiari eskatu ahal izango dizkio egiaztagiria edo informazio gehigarriak, aurrez eskatutako egokitzapenak onartu behar ote zaizkion baloratu ahal izateko. Era berean, epaimahaiak eskatu ahal izango du zerbitzu espezializatuen txostena eta, hala badagokio, haien laguntza.

9.2.6. Oposizio faseko ariketa bakoitza bukatutakoan, kalifikazio epaimahaiak hautagaiek lortutako behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu. Argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hautagaiek bost egun (5) balioduneko epea izango dute kalifikazio epaimahaiari ariketa horri buruzko erreklamazioak aurkezteko. Ariketa ikusi ahal izateko, ezinbestekoa izango da eskatzea epe horren lehenengo 3 egun baliodunetan.

Erreklamazioak aurkezteko epea bukatutakoan eta aurkeztu diren erreklamazioak –aurkeztu badira– ebatzitakoan, epaimahaiak ariketaren behin betiko emaitzak argitaratuko ditu; nolanahi ere, erreklamazioaren ebazpen arrazoiak jakinaraziko zaio interesdun bakoitzari.

Junto con la solicitud de aplazamiento se deberá adjuntar la documentación acreditativa de la circunstancia que alegue.

Las personas aspirantes que no comparezcan al llamamiento del Tribunal para el desarrollo de los ejercicios en el lugar, fecha y hora que se señale, sin perjuicio de lo previsto para las razones de fuerza mayor u otras causas admitidas por el Tribunal, serán definitivamente excluidas del proceso selectivo.

El Tribunal Calificador podrá requerir a las personas aspirantes en todo momento para que se identifiquen, por lo que deberán acudir a la realización de los ejercicios provistos de Documento Nacional de Identidad, pasaporte o permiso de conducir, o documento equivalente en el caso de las personas extranjeras, debiendo exhibirlo a requerimiento del personal municipal encargado de la realización de las diferentes pruebas selectivas.

9.2.4. En la realización de los ejercicios escritos cada Tribunal adoptará las medidas oportunas para garantizar, siempre que resulte posible, el anonimato de las personas aspirantes.

9.2.5. Para la realización de las pruebas selectivas se establecerán, para las personas con discapacidad que lo hayan solicitado, las adaptaciones y los ajustes razonables de tiempo y medios, siempre que no se desvirtúe el contenido de la prueba ni se reduzca o menoscabe el nivel de aptitud exigido.

Las personas con discapacidad, concurran o no por el cupo de reserva, que hayan indicado en la instancia de solicitud que requieren de adaptaciones y ajustes de tiempo y medios para la realización de las pruebas selectivas, deberán presentar, en el plazo de diez días hábiles que se concederá junto con la publicación de la lista provisional de personas admitidas y excluidas, la siguiente documentación:

- Un certificado médico en el que se indiquen las necesidades específicas que tienen para el desarrollo de las pruebas.

- Una resolución o un certificado, original o mediante copia auténtica, emitido por el órgano técnico competente para la calificación del grado de discapacidad, acreditando de forma fehaciente el grado de discapacidad reconocido y las deficiencias permanentes que han dado origen al grado de discapacidad. Sólo en el caso de que el Ayuntamiento de Arrasate no haya podido acreditar previamente este extremo.

Deberán presentar esa documentación dentro del plazo indicado tanto las personas admitidas como las excluidas en la citada lista provisional, dado que no se otorgará un nuevo plazo a quienes estando excluidas en la lista provisional pasen a estar admitidas en la lista definitiva.

Corresponde al Tribunal Calificador, a la vista de la documentación aportada, resolver la procedencia y concreción de las adaptaciones en función de las circunstancias específicas de cada prueba selectiva. Las adaptaciones no se otorgarán de forma automática, sino únicamente en aquellos casos en que la discapacidad guarde relación directa con la prueba a realizar.

El Tribunal Calificador podrá solicitar a la persona aspirante certificados o informaciones adicionales a efectos de poder valorar la concesión de las adaptaciones previamente solicitadas. Asimismo, el tribunal podrá recabar informe y, en su caso, colaboración de servicios especializados.

9.2.6. Finalizado cada ejercicio de la fase de oposición el Tribunal Calificador publicará los resultados provisionales obtenidos por las personas aspirantes. A partir del día siguiente al de la citada publicación las personas aspirantes dispondrán de un plazo de cinco días (5) hábiles para formular reclamaciones relativas a dicho ejercicio ante el Tribunal Calificador. Sólo se garantizará el acceso a su ejercicio en caso de que se solicite dentro de los 3 primeros días hábiles del citado plazo.

Finalizado el plazo para presentar reclamaciones y resueltas las que, en su caso, se hubieran presentado, el Tribunal hará públicos los resultados definitivos del ejercicio, sin perjuicio de la comunicación personal a cada interesado/a de la resolución motivada de su reclamación.

9.3. Euskera.

9.3.1. Arrasateko Udaleko lanpostu bakoitzak bere hizkuntza eskakizuna dauka izendatuta.

Deialdi bakoitzean adieraziko da deitutako plazak zer hizkuntza eskakizun duen, derrigorrezkoa den edo ez, eta hori zelan lortu eta/edo egiaztatu behar den, nahitaezkoa bada. Derrigortasun datatik aurrera, hizkuntza eskakizuna nahitaezko baldintza izango da dagokion lanpostua eskuratzeko.

Derrigorrezkoa ez bada, balioko du bakar-bakarrik, merezimendu gisa, euskara jakiteari zer balorazio eman behar zaion zehazteko.

9.3.2. Kalifikazio epaimahaiak jakinaraziko du hautaketa prozesuan euskarako proba noiz egingo den. Proba egiteko, deialdi bakarrari eta hautagaien identifikazioari buruz 9.2.3 oinarrian ezarritakoa aplikatu behar da.

Ariketa hori Gai edo Ez Gai gisa kalifikatuko da, eta gaitasun kalifikazioa lortu beharko da derrigorrezko hizkuntza eskakizuneko lanpostu bat eskatzen duten plazak betetzeko.

9.3.3. Dena den, hautagaiak salbuetsita egongo dira aurreko paragrafoan aipatzen den euskarako proba egitetik, baldin eta aurkezten badute dagokion hizkuntza eskakizuna alde zuzenetik lortu izanaren egiaztagiria.

Euskararen jakite maila (1., 2., 3., 4. hizkuntza eskakizunak; Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko B1, B2, C1 eta C2 mailen baliokideak, hurrenez hurren) honela frogatu daiteke: batetik, aurretik hizkuntza eskakizun jakin bat edo dagokion hizkuntza eskakizunarekin baliozkotutako titulu edo ziurtagiri bat lortu izana justifikatzen duten agiriak aurkeztuta edo, bestela, ikasketa ofizialak euskaraz egin direla erakusteko agiriak aurkeztuta (horrela hizkuntza gaitasuna tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzen salbuetsita geratzen direlako), momentu bakoitzean indarrean dagoen legediaren arabera.

Hautagaiak eskaera orrian adierazi beharko dute data horretan egiaztatuta duten euskarazko hizkuntza eskakizuna.

Euskarako proba egitetik salbuetsita daudenek egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte eskatzen zaienean, eta beti euskarako probaren lehenengo ariketa egin baino lehen, baldin eta aurka agertu badira egiaztapen hori zuzenean Arrasateko Udalak egitea.

